



**Busturiko
Udala**



Ordenantza fiskalak

Busturiko Udalaren Osoko Bilkurak, 2018ko urtarrilaren 31an ospaturiko batzarraldian, beste batzuen artean, hurrengo erabakia hartu du:

- Zerbitzu publikoak emateagatiko eta ekonomia-jarduerak egiteagatiko tasak (etxez etxeko bilketa) arautzen duen Ordenantza Fiskalaren aldaketaren behin behineko onarpena.

Espedientea jendaurrean azalduta geratzen da Erakundeko Iragarki Taulan 30 eguneko epean zehar, Toki Ogasunari buruzko 9/2005, abenduaren 16koa, Foru Arauko 16.1 artikuluan eta Toki Araubideko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legeko 49. artikuluan arautzen denaren arabera eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, interesatuek aurkez ditzaten bi-dezko direla usten dituzten erreklamazioak.

Aipatu epea igaro ondoren inolako erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, Udalbatza honen Osoko Bilkurak berariazko erabakiarekin behin betiko onartuta daudela ulertuko da.

Busturian, 2018ko otsailaren 2an

Alkatea

Busturiko
Udala

Aitor Aretxaga Telletxea